

KUP-EKO KUDEATZAILEAREN EBAZPENA

EGONKORTZEKO SALBUESPENEN PROZESUA, DONOSTIAKO KIROLETAKO UDAL PATRONATUKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO TEKNIKARI PLAZA BAT LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO.

Gerentziaren 2024ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez, lehiaketa-faseko azken kalifikazioak argitaratu ziren, izangai bakoitzari dagokion lehenetsun-hurrenkeran, bai eta hautatutako pertsonaren behin-behineko zerrenda eta dagokion lanpostua ere.

2024ko apirilaren 2an, hautatutako pertsonaren eta esleitutako lanpostuaren behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hautatutako pertsonak parte hartzeko baldintzak egiaztatu ondoren, 2024ko maiatzaren 16an (2024ko maiatzaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 100. zk.) karrerako funtzionario izendatua izan zen Administrazio Bereziko Goi Mailako Teknikari plaza bat (1) betetzeko, Goi Mailako Teknikari Ekonomiko lanpostuan (4042). Lanpostua A taldekoa, A1 azpitaldekoa, administrazio bereziko eskalakoa, teknikarien azpieskalakoa, goi-mailako teknikarien motakoa da.

Ondoren, 2024ko ekainaren 4an, karrerako funtzionario izendatutako pertsonak lanpostua jabetzan hartu zuen, eta lanpostua hartzeko unean bertan, lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatu zuen.

Egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren deialdiaren oinarrien 13.3 oinarriaren arabera (2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 247. zk.), karrerako funtzionario izendatutako pertsonak lanpostua jabetzan hartzeko unean lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, hutsik geratzen diren plazak esleitu ahal izango dira. Horretarako, azken kalifikazioen ondoriozko lehenetsun-ordenara joko da hautatutako beste izangai batzuk izendatzeko, baldin eta plaza horiek bete gabe badaude, eta 15 egun balioduneko epea eman beharko zaie 12.1 oinarrian zerrendatutako betekizunak egiaztatzeko.

Hori horrela, KUPeko Kudeatzailearen 2024ko ekainaren 17ko, abuztuaren 29ko, urriaren 15eko eta azaroaren 5eko

RESOLUCIÓN DE LA GERENCIA DEL PMD

PROCESO EXCEPCIONAL DE ESTABILIZACIÓN PARA LA PROVISIÓN MEDIANTE CONCURSO DE UNA PLAZA DE TÉCNICO/A DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL DEL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE SAN SEBASTIÁN

Mediante Resolución de Gerencia de fecha 16 de febrero de 2024, se publicaron las calificaciones finales de la fase de concurso en el orden de prelación que le corresponde a cada aspirante, así como la relación provisional con la persona seleccionada y el puesto correspondiente.

Con fecha 2 de abril de 2024 se publicó la relación definitiva con la persona seleccionada y el puesto adjudicado.

Una vez acreditados los requisitos de participación por la persona seleccionada, el 16 de mayo de 2024 (Boletín Oficial de Gipuzkoa de n.º 100 de 24 de mayo de 2024) fue nombrada funcionaria de carrera para ocupar con tal carácter una (1) plaza de Técnico/a Superior de Administración Especial, perteneciente al grupo A, subgrupo A1, escala de administración especial, subescala técnica, clase técnicos/as superiores, en el puesto de Técnico/a Superior Económico (4042).

Posteriormente, con fecha 4 de junio de 2024 la persona nombrada funcionaria de carrera tomó posesión del puesto solicitando, en el mismo momento de la toma de posesión, excedencia sin derecho a reserva de puesto.

Según la base 13.3 de las bases de la convocatoria del proceso excepcional de estabilización (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 247 de 30 de diciembre de 2022), si las personas nombradas funcionarias de carrera solicitan excedencia sin derecho a reserva de puesto en el momento de la toma de posesión, se podrá proceder a adjudicar las plazas que dejen vacantes. A tal efecto se acudirá al orden de prelación resultante de las calificaciones finales para designar otros/as aspirantes seleccionados/as que tuvieran cabida dentro del número de plazas convocadas sin cubrir, debiendo otorgarles un plazo de 15 días hábiles para acreditar los requisitos enumerados en la base 12.1.

Así, mediante las Resoluciones de la Gerencia del PMD, con fechas de 17 de junio, de 29 de agosto, de 15 de

ebazpenen bidez, lehenetsun- ordenari jarraituz hurrengo hautagaiak aukeratu ziren, guztiek plazari uko eginez.

Azaldutakoagatik, bidezkoa da hurrengo izangaia hautatzea, Gerentziaren 2024ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez argitaratutako azken kalifikazioen lehenetsun-ordenaren arabera, eta 15 egun balioduneko epea ematea, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizunak egiaztatzeko balio duen dokumentazioa aurkezteko.

Horregatik guztiagatik, KUPeko Kudeatzaileak, aipatutako erakunde autonomoaren estatuetan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU

LEHENENGOA.- Azken kalifikazioen ondoriozko lehenetsun-ordenari jarraituz, eta deialdiaren oinarrien 13.3 oinarria aplikatuz, hautatutako pertsona berriaren behin betiko zerrenda eta dagokion lanpostua argitaratzea **(I. Eranskina)**.

BIGARRENA.- Hautatutako pertsonari **hamabost egun balioduneko epea** ematea, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko behar diren agiria aurkezteko. Agiri horiek **II. eranskinean** daude jasota.

Donostiako KUPen zerbitzuak eman dituzten izangaiek beren Espediente Pertsonalean jasota ez dauden egiaztagiria –parte hartzeko betekizunei dagozkienak– baino ez dituzte aurkeztu beharko.

Era berean, ez da beharrezkoa izango betekizun bat egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, baldin eta Donostiako KUPen bitarteko elektronikoen bidez egin baditzake izangaien datuei eta dokumentuei buruz egin beharreko egiaztapenak eta kontsultak, datu eta dokumentu horiek Administrazioak sortu baditu edo Administrazioaren esku badaude.

Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo direla informatzen zaizu:

- Unibertsitateko tituluak eta unibertsitateaz kanpoko titulu ofizialak
- Euskarako ziurtapenatarako hizkuntza-eskakizunak

Kontsultak kasu guztietan egingo dira, interesdunak aurka dagoela adierazi ezean, arrazoiak emanez; kasu horretan,

octubre y de 5 de noviembre de 2024, se seleccionaron los siguientes candidatos siguiendo el orden de prelación, renunciando todos ellos a la plaza.

Por lo expuesto, procede designar aspirante seleccionado al siguiente aspirante según el orden de prelación de las calificaciones finales publicadas por Resolución de la Gerencia de 16 de febrero de 2024, y otorgarle un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la publicación, para presentar la documentación que sirva para acreditar los requisitos de participación en el proceso selectivo.

Por cuanto antecede, el Gerente del PMD, en uso de las atribuciones conferidas por los estatutos del mencionado Organismo Autónomo,

RESUELVE

PRIMERO.- Siguiendo el orden de prelación resultante de las calificaciones finales, y en aplicación de la base 13.3 de las bases de la convocatoria, publicar la relación definitiva con la nueva persona seleccionada y el puesto adjudicado **(Anexo I)**.

SEGUNDO.- Otorgar a la persona seleccionada un plazo de **quince días hábiles**, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente resolución, para presentar la documentación que sirva para acreditar los requisitos de participación en el proceso selectivo, siendo éstos documentos los que se recogen en el **Anexo II**.

Los/as aspirantes que hayan prestado servicios en el PMD de San Sebastián únicamente deberán presentar los documentos acreditativos de los requisitos de participación que no consten en su Expediente Personal.

Tampoco será necesario aportar la documentación acreditativa de un requisito en los casos en los que el PMD de San Sebastián pueda realizar por medios electrónicos las comprobaciones y consultas necesarias de los datos y documentos de las personas aspirantes que hayan sido elaborados u obren en poder de la Administración.

La documentación a recabar por el PMD es la siguiente:

- Títulos universitarios y no universitarios oficiales
- Perfiles de certificaciones en euskera

Las consultas se realizarán en todos los casos salvo que la persona interesada haga constar su oposición motivada, en

egitea nahi ez duen kontsultari buruzko dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

cuyo caso deberá aportar los documentos referidos a la consulta a la que se opone.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute ebazpena eman duen organoaren aurrean hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabete iragan baino lehen. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira aipatutako epeak. Hala ere, egoki jotako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Contra esta resolución, que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que ha dictado la resolución en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses. Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de su publicación. Todo ello sin perjuicio de la interposición del recurso que se estime conveniente.

Donostian, sinaduraren egunean
David Feijoo Rogel
KUPeko Kudeatzailea / Gerente del PMD



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

◆ Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

I. ERANSKINA / ANEXO I

HAUTATUTAKO PERTSONAREN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA DAGOKION LANPOSTUA RELACIÓN DEFINITIVA DE LA PERSONA SELECCIONADA Y PUESTO ADJUDICADO

	NAN DNI	Hautagaia Persona candidata	Lanpostua Puesto
6	***8703**	ADARRAGA,SANTAMARIA,CAROLINA	EKONOMIAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA TÉCNICO/A SUPERIOR ECONÓMICO

II. ERANSKINA / ANEXO II

1.- Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, pasaporte edo nazionalitatea frogatzen duen beste edozein agiri. Dokumentuak indarrean egon beharko du.

Espainiarren edo Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako nazionalen ezkontideak nahiz ezkontidearen ondorengoak izateagatik hautaketa-probetan parte hartu duten izangaiek, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: ahaidetasun-lotura egiaztatzen duten agiriak, agintari eskudunek emanak, eta lotura hori duen espainiarren edo Europar Batasuneko nazionalaren zinpeko aitortpena edo promesa, ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazten duena eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela egiaztatzen duena.

2.- Donostiako KUPeko Laneko Osasun Zerbitzuaren ziurtagiri medikoa, eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala duela eta lan hori egitea eragozten dion gaixotasun edo muga fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

3.- Diziplina-espeditente bidez edozein administrazio publikoren edo autonomia-erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea, bereizi edo desgaitutako kidegoan edo eskalan sartzeko. Horretaz gain, zinpeko aitortpena edo promesa, ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez dagoela adierazteko.

Espainiako nazionalitatea ez duenak zinpeko adierazpen bat edo promesa bat aurkeztu beharko du, adierazteko ez dagoela desgaituta edo antzeko egoera batean, eta ez duela, bere Estatuan, enplegu publikoan sartzeari eragozten dion diziplina-zehapenik edo baliokiderik.

Baldintza hori egiaztatzeko, pertsonen kudeaketa-arloak ale normalizatu bat jarriko du hautatutako pertsonen eskura.

4.- 1. eranskinetako plazak agertzen dituen taulan eskatzen den titulazioa, lortu nahi den plazara sartzeko behar dena, edo titulazio hori eskuratzeko tasak ordaindu izanaren

1.- El Documento Nacional de Identidad o, en su caso, el pasaporte o cualquier documento acreditativo de la nacionalidad. El documento deberá encontrarse en vigor.

En el caso de aspirantes que hayan concurrido a las pruebas selectivas por tratarse de cónyuges, o descendientes del cónyuge, de españoles o nacionales de países miembros de la Unión Europea deberán presentar los documentos expedidos por las autoridades competentes que acrediten el vínculo de parentesco y una declaración jurada o promesa del español o nacional de la Unión Europea con el que existe este vínculo, de que no está separado de derecho de su cónyuge y, en su caso, del hecho de que el aspirante vive a sus expensas o está a su cargo.

2.- Certificado médico del Servicio de Salud Laboral del PMD de San Sebastián mediante el que se acredite que se posee la capacidad funcional para el desempeño de las tareas y que no se padece enfermedad o limitación física o psíquica que impida ese desempeño.

3.- Declaración jurada o promesa de no haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso del cuerpo o escala de funcionario en el que hubiese sido separado o inhabilitado. Asimismo, declaración jurada o promesa de no hallarse incurso en alguna de las causas legales de incapacidad o incompatibilidad.

Quien no tenga la nacionalidad española deberá presentar una declaración jurada o promesa de no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente, ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, el acceso al empleo público.

Para la acreditación de este requisito el área de gestión de personas pondrá a disposición de las personas seleccionadas un ejemplar normalizado.

4.- Titulación exigida en la tabla de plazas recogida en el Anexo 1 para acceder a la plaza a la que se opta en cada caso, o justificante del abono de las tasas para su

egiaztagiria.

Tituluak atzerrian lortu dituzten izangaiek titulu horiek homologatuta edo baliozkotuta daudela egiaztatzeako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

3.1.5 oinarriaren azken paragrafoan jasotako kasuan, lanbidekualifikazioaren aitortpena egiaztatu beharko da, araututako lanbideen arloan, Europako Erkidegoko Zuzenbideko xedapenen babesean.

5.- Lortu nahi den plazari dagokion eranskinean eskatzen diren beste betekizun espezifikoko batzuk egiaztatzea halakorik eskatzen bada.

Plazari dagokion eranskinean adierazten bada oinarri hauetako 3.1.7 apartatuan ezarritako baldintza bete behar dela, adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanbide, ofizio eta jardueretan aritzea eskatzen duten lanpostuak direnez, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko da.

Nolanahi ere, atzerriko jatorria edo beste nazionalitate bat duten herritarrek, aurrekoaz gain, beren jatorrizko herrialdeko edo nazionalak diren herrialdeko agintariak emandako zigor-arloko kondenak ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute, Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala arautzen duen 2015eko abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuaren 3. artikulua 1. apartatuan adierazitako delituei dagokienez.

expedición.

Los/as aspirantes con titulaciones obtenidas en el extranjero deberán aportar la documentación acreditativa de su homologación o convalidación.

En el supuesto recogido en el último párrafo de la base 3.1.5 se deberá acreditar el reconocimiento de la cualificación profesional, en el ámbito de las profesiones reguladas, al amparo de las disposiciones de Derecho Comunitario.

5.- Acreditación de otros requisitos específicos exigidos, en su caso, en el anexo referido a la plaza a la que se opta.

En el supuesto de que en el anexo correspondiente a la plaza se señale que es exigible el requisito establecido en el apartado 3.1.7 de las presentes bases, por tratarse del acceso a puestos de trabajo que supongan el ejercicio de profesiones, oficios y actividades que impliquen contacto habitual con menores, se deberá aportar una certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales.

En todo caso, los/as ciudadanos/as de origen extranjero o que tuvieran otra nacionalidad deberán, además, aportar certificación negativa de condenas penales expedido por las autoridades de su país de origen o donde sean nacionales respecto de los delitos que señala el apartado 1 del artículo 3 del Real Decreto 1110/2015, de 11 de diciembre, por el que se regula el Registro Central de Delincuentes Sexuales.